



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2012ko UZTAILAREN 24an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2012ko uztailaren 24an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Ainara Sarasola Arsuaga
Uxue Etxebeste Eizagirre
Koldobika Jauregi Zinkunegi.

Bere ezin etorria azaltzen du: Ainara Zurutuza Ilundain

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.
2012ko ekainaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Actuaciones de mejora y seguimiento de los hábitats y especies de interés comunitario en Alkiza, incluidos en el Lic Ernio Gatzume jarduna eta finantzaketa onestea, hala bada.**
- 5. Beste batzuk.**
- 6. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA
AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2012ko ekainaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuei jakinarazten die aurreko bilkuratik Alkatetza ebazpenik ez dela eman, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	12.413,08€
- M ^a TERESA TELLERIA	849,60€
- BULEGOAK	292,91€
- ARGITU ASESORES	133,52€
- EBA ERKIZIA BRION	227,14€
-ORONA	796,50€
- JON UMEREZ URREZOLA	258,67€
-LARRAITZ FRANCO	450,44€
- GAS NATURAL FENOSA	697,24€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **16.119,10** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA
“ ACTUACIONES DE MEJORA Y SEGUIMIENTO DE LOS HABITATS Y ESPECIES DE INTERES COMUNITARIO EN ALKIZA, INCLUIDOS EN EL LIC



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERNIO GATZUME” JARDUNA ETA FINANTZAKETA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udalak diru-laguntza eskaera egin zuela, 2012ko maiatzaren 23ko aginduaren babesean, non agindua Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena zen, garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-entitate batzuei, toki-erakunde autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak ematea arautzen zuen.

Diru-laguntza eskaera Actuaciones de mejora y seguimiento de los habitats y especies de interes comunitario en Alkiza, incluidos en el Lic Ernio Gatzume jarduna egiteko zen, Biodibertsitate lerroaren barruan.

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, nekazaritza eta arrantza sailetik dokumentazio gehigarria eskatu diguten, ondorengo diolarik: Eskatutako diru-laguntzaren xedea den jarduna eta finantzatzeko toki erakundearen ekarpena onesteko erabakia.

Ikusirik 2012ko Udal aurrekontuaren barruan 600.441.00.01 partidaren eskatutako diru-laguntza hori udalak jarri beharko luken dirutza nahikoa dagoela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Actuaciones de mejora y seguimiento de los habitats y especies de interes comunitario en Alkiza, incluidos en el Lic Ernio Gatzume jarduna, Biodibertsitate lerroa onestea.

BIGARRENA: Actuaciones de mejora y seguimiento de los habitats y especies de interes comunitario en Alkiza, incluidos en el Lic Ernio Gatzume jarduna finantzatzeko Alkizako Udalaren ekarpena onestea, 600.441.00.01 partidaren babesean.

BOSTGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

5.1. ALKIZAKO HERRI ESKOLAN BURUTU BEHAR DIREN LANEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2012ko uztailaren 4ko agindua, Unibertsitate eta ikerketako sailburuarena. Honen bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantziakzioa arautzen den (Udalaguntza-2012)

Ikusirik Alkizako Herri Eskolan beharrezkoa dela hainbat lan burutzea, zerbitzu egoki bat eman ahal izateko. Horretarako Eneko Iturbe Udal Arkitekto Teknikoak prestatu du "Leihoetako inguratzaile termikoa" izeneko memoria eta aurrekontu bat.

Ikusirik Alkizako Udalak asmoa duela Alkizako Herri Eskolan egin behar dituen lanak finantzatu ahal izateko diru-laguntza eskaera egitea, Unibertsitate eta ikerketako sailburuak onarturiko 2012ko uztailaren 4ko aginduaren babesean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Eneko Iturbe Udal Arkitekto Teknikoak prestatuturiko Alkizako Herri Eskolako "Leihoetako inguratzaile termikoa" izeneko memoria eta aurrekontua onestea.

BIGARRENA.- Alkizako Herri Eskolan egin behar diren lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2012ko uztailaren 4ko agindua, Unibertsitate eta ikerketako sailburuaren babesean. Honen bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantziakzioa arautzen den (Udalaguntza-2012)

5.2. AINARA ZURUTUZA ILUNDAIN ZINEGOTZIAREN KARGU UZTEAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udaleko zinegotzia den Ainara Zurutuza Ilundain andreak Alkizako Behin Behineko Idazkari Kontuhartzailea den Ane Gomez Urteaga andrearen aurrean 2012 urteko uztailaren 19an egindako agerraldia, akta jasoia egonik, zeinetan adierazten duen Alkizako udal ordezkari karguari uko egiten diola arrazoi pertsonalak direla eta.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Herri Erakundeen antolamendua, funtzionamendua eta eraentza juridikoa arautzen duen erregelamenduak, 2568/1986 Errege Dekretuak, 9.3 artikuluan xedatutakoaren arabera udal ordezkari batek kargua uzteko idatziz aurkeztu behar diola Udalbatzarrari.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Ainara Zurutuza Ilundain andreak aurkeztu duen kargu uztea onartzea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri "Junta Electoral Zentralari" ematea.

5.3. LARRAULGO UDALAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA

Ikusirik Larraulgo Udalak eginiko eskaera, non azaltzen duten abuztuaren 3tik 5era San Esteban jaiak ospatuko direla, horregatik 200 auki uzteko baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalari 200 auki uztea, Larraulen, abuztuaren 3tik 5era ospatuko duten San Esteban jaietarako. Aulkiak hartzeko Udal operarikin harremanetan jarri beharko direlarik.

BIGARRENA: Larraulgo Udalari jakinarazi, aulkiak jasotako egoeran itzuli beharko dituztela eta hauek hautsiz gero, berriak ekarri beharko dituztela.

5.4. ARRATE IRRATIAK S.L. -ek ALKIZAKO JAIETARAKO AURKEZTURIKO AURREKONTUAREN AZTERKETA

Ikusirik Arrate irratia S.L.-k igorritako 2012 urteko Alkizako jaietarako aurrekontua, non aste batean, egunean bi kuina emateagatik 90€+BEZ ko balioa izango duen aurrekontua igortzen duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BAKARRA: Arrate Irratiak S.L. –k igorritako 2012 urteko Alkizako jaietarako aurrekontua onestea, bere kostua 90 euro+BEZ izango delarik. Bertan aste batean egunean bi kuina eskainiko dituztelarik.

5.5. ALKIZAKO HERRI-ESKOLAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako herri eskolako ikas komunitateak eginiko eskaera, non Billabonan burutu diren igeriketa ikastaroetako kanpainan sortu diren autobus bidaiak finantzatzeko diru-laguntza eskaera egiten du. Horretarako aurrekontua aurkezten du, bere zenbatekoa 2.500,00.-euro direlarik.

Gaia azterturik, bertaratuek aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Herri eskolari 480,00.-eurotako diru-laguntza ematea, igeriketa kanpainan burutu diren ikastaroen autobus bidaiak finantzatzeko.

BIGARRENA.-480 eurotako gastua onestea.

5.6. GOBERNUAREN ORDEZKARITZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK IGORRITAKO IDATZIAREN BERRI EMATEA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak batzarkideei jakinarazten die, Gobernuaren ordezkariak Euskal Autonomia erkidegotik igorri dela idatzi bat, non ondorengo dioen:

“Se ha tenido conocimiento en esta Delegación del Gobierno de que en la fachada principal de ese Ayuntamiento no ondea la bandera de España.

El art. 3.1. de la Ley 39/1981 por la que se regula el uso de la bandera de España y el de otras banderas y enseñas dispone que la bandera de España deberá ondear en el exterior y ocupar el lugar preferente en el interior de todos los edificios y establecimientos de la Administración central, institucional, autonómica, provincial o insular y municipal del Estado.

El art. 4 de dicha ley indica que en las Comunidades Autónomas, cuyos Estatutos reconozcan una bandera propia, ésta se utilizará conjuntamente con la bandera de España en todos los edificios públicos civiles del ámbito territorial de aquella, en los términos de lo dispuesto en el art. 6 de la presente ley.

De conformidad con lo previsto en el art. 65 de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases de Régimen Local, le requiero para que en el plazo de un mes proceda a



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

dar cumplimiento a lo previsto en la normativa citada.

EL DELEGADO DEL GOBIERNO”

Batzarkideak, Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegotik igorritako idatziaren berri hartzen dute.

5.7. GOBERNUAREN ORDEZKARITZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK, DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 2.ZK. EPAITEGIAN TARTEKATURIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAREN BERRI EMATEA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak batzarkideei berri ematen die Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoak, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2.Zk. epaitegian administrazioarekiko Auzi-errekurtso bat tartekatu duela, Alkizako Udalak, Toki-Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 1985/7 Legearen 56.1 artikulua esaten duena ez betetzeagatik. Aipaturiko artikulua ondorengoa dio:

“Toki-erakundeek udal Gobernu organoen erabaki edo akordioen fotokopia eta bere kasuan, laburpen ulergarria Gobernuaren Ordezkariordeztza honetara igortzearen betebeharra xedatzen du, berauek erabakitzen diren hurrengo sei egunen barnean. Udalbatzaren Idazkariak, berehala eta Alkateak edo Udalburuak, igorpen honen betekizunaren erantzule izango dira.

.../...”

Idazkari-Kontuhartzaile andreak batzarkideei jakitera ematen die, eskatutako erabakiak erdaratu bezain pronto Gobernuaren Ordezkariordeztzara igorriko dituela eta aldi berean, Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoak tartekaturiko auzi-errekurtsoa bertan behera gelditzea eskatuko duela.

5.8. BIDA TEKNOLOGIAREN BIDEZ EGINDAKO HERRIKO HONDAKIN URAK ARAZTEKO PLANTAN ATERATZEN DIREN UREN ANALISIA BIDATEK INGENIERIA AMBIENTAL S.L. RI ESLEITZEA

Ikusirik Bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantatik ateratzen den ura ez dela analizatzen.

Ikusirik Bidatek Ingenieria ambiental S.L. ri eskatu zaiola ur araztegitik ateratzen den ura analizatzeko aurrekontu bat, gutxi gora behera, 120 euro



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

izanik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantatik ateratzen den uraren analisiak egiteko Bidatek Ingenieria ambiental S.L. ri esleitzea, ur analisiak hiru hilabetetik behin egingo direlarik.

5.9.PERUALDEAN DAGOEN BELARDI TXIKI BATEAN BANKU BAT JARTZEKO ESKAERA.

Ikusirik N.A. andreak eginiko eskaera, non Perualdea 3 zenbaki aurrean aparkamendu eta errepidearen tartean dagoen belardian banku bat jartzeko eskaera egiten duen.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatza honen, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: N.A. andreari jakinaraztea berak egin duen eskaera Udal honek aztertuko duela.

SEIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.20 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.